

36/2016 EBAZPENA, otsailaren 18ko, Uribe ESIko zuzendari gerentearena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Areetako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Uribe ESIan Areetako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzen lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

**OINARRIAK:****1.- Parte hartzeko baldintzak.**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea A1/B1 lanbide-taldean.

**b).- Titulu hauetakoren bat izatea:**

b.1.- Medikuntzan eta Kirurgian lizenziatura, Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatearekin edo Medikuntza Orokorreko Medikuaren eginkizunak betetzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplomaren batekin, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren (Osakidetako lanpostu funtzionalak arautzen dituena) I. Eranskinean aurreikusitakoaren arabera; edo Pediatrician espezialitatea izatea.

b.2.- Erizaintzako unibertsitate-diploma.

c).- Lan-esperientzia: gutxienez, 4 urteko esperientzia izan beharko dute, A1/B1 lanbide-taldeetako zereginetan.

**2.- Aintzat hartuko diren merituak:**

Balaratu egingo da dagokion Lehen Mailako Arretako Unitatea kudeatzeko Memoria Proiektua.

**3.- Euskararen ezagutza.**

Euskararen erabilera Osakidetzen normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauiek, xedatutakoaren arabera balaratuko da.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:**

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Personaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: (Alangoko Osasun Zentroa - Alango kalea, 30 – 48992 Algorta-GETXO Bizkaia). Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, Uribe ESIko (Alangoko Osasun Zentroa - Alango kalea, 30 – 48992 Algorta-GETXO Bizkaia) Personaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

- b) Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Lehen Mailako Arretako Unitateko Memoria Proiektua

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

#### 5.- Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko. Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez baditzute.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

#### 6.- Hautatzeko procedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren Iragarkia EHAAn argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkezu eta egiaztatu ez direnak ere.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagozkion funtziok esleitzeko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez baditzute.

#### 7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetzako Uribe ESIko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetzako intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, Iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu Iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

#### 8.- Ebazpen honen aurkako errekurtoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Getxon, 2016ko otsailaren 18an.

Uribe ESIko zuzendari gerentea  
M<sup>a</sup> Luz Marqués González

 Osakidetza

URIBE ESI  
OSI URIBE  
GERENTZIA  
GERENCIA  
C/Alango, 30 - 48992 GETXO  
Telf: 94 600 70 05

RESOLUCIÓN 36/2016, de 18 de febrero, de la Directora Gerente de la OSI Uribe, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Jefe/a de Unidad de Atención Primaria de Areeta en la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El puesto de Jefe/a de Unidad de Atención Primaria de Areeta en la OSI Uribe esta vacante. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

**BASES:****1.- Requisitos de participación.**

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional A1/B1

b).- Estar en posesión de una de las siguientes titulaciones:

b.1.- Licenciatura en Medicina y Cirugía, con la especialidad en Medicina Familiar y Comunitaria o alguno de los títulos, certificados o diplomas establecidos para el ejercicio de las funciones de Médico de Medicina General, de conformidad con lo previsto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza, o bien con la especialidad en Pediatría.

b.2.- Diplomatura Universitaria en Enfermería.

c).- Experiencia profesional mínima de 4 años de experiencia en el desempeño de tareas propias de los Grupos A1/B1.

**2.- Méritos a considerar:**

Se valorará la Memoria-Proyecto de Gestión de la Unidad de Atención Primaria de que se trate.

**3.- Conocimientos de euskera.**

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

**4.- Plazo y presentación de solicitudes.**

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI Uribe (Centro de Salud de Alango, 30 - C/ Alango, 30 – 48992 - Algorta-Getxo Bizkaia) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal de la OSI Uribe (Centro de Salud de Alango, 30 - C/ Alango, 30 – 48992 - Algorta-Getxo Bizkaia) (dirección de organización de servicios). La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos
- d) Memoria-Proyecto de la Unidad de Atención Primaria

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

#### 5.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión para la valoración de las solicitudes presentadas. Efectuada la valoración de los aspirantes, y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El tribunal podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas. Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

#### 6.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

Efectuada la valoración de los aspirantes, y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar la oportuna asignación de funciones. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

#### 7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución de la Directora Gerente de la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco. Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

#### 8.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Getxo, a 18 de febrero de 2016.

La Director/a Gerente de la OSI Uribe  
**M<sup>a</sup> LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ**

 Osakidetza

URIBE ESI  
OSI URIBE  
GERENTZIA  
GERENCIA  
C/Alango, 30 - 48950 GETXO  
Tfno.: 94 600 70 05